

## **BEZEROEKIKO HARREMANAK**

Bezero berriak erakartzeko intentzioarekin, gure eskualdean dauden merkatal gune desberdinetara joango gara zentro horietako arduradunarekin zuzenean hitz egiteko. Bertan, gure sistemaren inguruan hitz egingo diogu eta hainbat datu espezifiko emango dizkiogu, sistemaren onurak azpimarratuz.

Horretaz gain, gure sistema erosiko duten bezero berriak aurkitzeko, ingurugiroa zaintzeaz larrituta dauden webguneetan iragarkiak jarri ditzakegu, erosle posibleak aurkitzeko eta gure sistema zabaltzen laguntzeko.



Merkatal guneak gure sistema instalatzen duenean, gure enpresarekin harreman zuzena edukitzeko telefono zenbaki bat emango diegu. Merkatal zentroan arazoren bat gertatu bada gure birziklapen sistemarekin, arduradunak emandako telefonora deitu ahal izango du, eta gure teknikari bat egongo da merkatal gunean denbora tarte txiki batean. Gure teknikariak ez dira eguneko 24 orduak eskuragarri egongo, teknikarien ordutegia goizeko 09:00etatik gaueko 22:00etara izango da.

Telefono zenbakiaz gain, gure enpresak bi webgune berri bat sortuko ditu. Lehenengo webgunean, merkatal zentroetako arduradunek beraien balorazioak jarri ahal izango dituzte, eta hobekuntza posibleak guri zuzenean bidali ere bai. Bigarren webgunean, aldiz, gure sistema erabili duten bezeroek balorazio pertsonal bat egin ahal izango dute, eta bertan beraien esperientzia azaldu ahal izango dute.